

TABAKOAREN KONTSUMOAREN PUBLIZITATEA EGITEKO ETA SUSTATZEKO MUGAK

34. artikulua.– Tabakoaren publizitatea.

Debekatuta dago tabako-produktuen publizitate guztia, kasu hauetan izan ezik:

1.– Tabako-merkataritzan parte hartzen duten profesionalentzat bakarrik diren argitalpenetan.

2.– Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetatik kanpo argitaratu edo inprimatu diren eta tabako-produktuen publizitatea daukaten argitalpenetan, baldin eta argitalpen horiek ez badira nagusiki Europar Batasuneko merkaturako eginak. Edonola ere, halako publizitatea debekatuta egongo da argitalpenak batez ere adingabeentzat baldin badira.

35. artikulua.– Tabakoa sustatzea.

1.– Debekatuta egongo da tabako-produktuak babestea eta haien beste edozein motatako sustapena egitea bitarteko eta euskarri guztietan, baita tabako-makinetan eta informazioaren gizartearen zerbitzuetan ere. Hori horrela, ondoko hauek salbuespentzat joko dira: tabako-produktuak sektoreko profesionalei aurkeztea, Tabako Merkatuaren Antolamenduari eta Zerga Arauei buruzko maiatzaren 4ko 13/1998 Legearen esparruan, eta produktu horiek Estatuko tabako-eta tinbre-saltokien sarean sustatzea; nolana ere, debekatuta egongo da, sustapen horren hartzaileak adingabeak direnean, tabakoa edo tabako-produktuei edo erretzeko ohiturari soilik loturiko ondasun edo zerbitzuak doan banatzen direnean edo doan banaturikoek tabako-produktuetarako erabiltzen diren izenak, markak, ikurrak edo bestelako bereizgarriak inprimatuta dauzkatenean. Dena den, aipaturiko ondasun edo zerbitzuen balioa edo salneurria ezin daiteke izan sustatu nahi diren tabako-produktuen salneurriaren ehuneko bost baino handiagoa.

Jarduera horiek ez dira inoiz erakusleihatik egingo, ez establezimendu horietatik kanpo hedatuko, ez kanpora zuzenduko.

2.– Debekatuta egongo dira zuzenean edo zeharka tabakoa sustatu nahi duten jarduerak eta tabako-produktuen, -ondasunen edo -zerbitzuen doako edo sustapenezko banaketa, tabako- eta tinbre-saltokien sarean izan ezik.

36. artikulua.– Tabakoaren publizitatea hedabideetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eta bertan egindako telebista-programetan, aurkezleak, elkarrizketatuak, kolaboratzaileak eta gonbidatuak ezingo dira tabakoa erretzen agertu, ez eta tabako-produktuen markak, izen komertzialak, logotipoak zein produktu horiek identifikatzeko edo gogora ekartzeko balio duten bestelako zeinuak bistan direla ere.

37. artikulua.– Tabakoaren publizitaterako bestelako erak.

Debekatuta egongo da dena delako markak, gauzakiak edo produktuak, duen izenagatik, erabilitako hitzengatik, grafismoagatik, aurkezteko moduagatik edo beste arrazoiren batengatik, zeharka edo erdi ezkutuan tabakoaren publizitatea egitea. Salbuespena izango dira tabako-dendak eta tabakoaren sektoreko jarduera

profesionalarekin zuzenean loturiko espazioak.